



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ordenanzas/Reglamentos Propuesta de resolución

Ordenantzak/Araudiak Proposatutako ebazpena

1105/2017

SER1110LB

Código de validación/*Balidazio kodea*
5B5D6R45646F0R0Y18MR



ASUNTO/GAIA

Propuesta de resolución sobre aprobación definitiva de la Ordenanza municipal reguladora de la instalación y actividad de establecimientos hosteleros y actividades recreativas. *[Ostalaritzako eta jolas-jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzen duen Udal Ordenantza behin betikotasunez onesteari buruzko ebazpen-proposamena.*

Comisión Informativa de Asuntos
Generales-Pleno

Barbara Carbone

PLA11103P – PLA111048 - PLA11111Y - PL11112H

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN/PROPOSATUTAKO EBAZPENA

Udalbatzarrak 2017ko uztailaren 4an eginiko bilkuran “Ostalaritzako eta jolas-jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzen duen Udal Ordenantza” hasierako izaeraz onestea eta berrori jendaurrean erakustea onetsi zuen, jendeak alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Dokumentua jendaurrean egon zen 30 egun balioduneko epean: 2017ko uztailaren 17ko 136. BAO on argitaratu zen; iragarkia jarri zen 2017ko uztailaren 20ko EL CORREO egunkarian eta Udalaren webgunean argitaratu zen 2017ko uztailaren 10etik irailaren 6ra bitartean.

Jendaurreko erakustaldi horretan Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak alegazioa aurkeztu du, eta horren inguruan udal zerbitzu teknikoek txostena egin dute.

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 4 de julio de 2017 acordó aprobar inicialmente la “Ordenanza municipal Reguladora de la instalación y actividad de establecimientos hosteleros y actividades recreativas” y someterla a trámite de exposición pública para alegaciones.

El documento fue sometido a información pública durante el plazo de 30 días hábiles, mediante publicación en el BOB nº 136 de 17 de julio de 2017; en el periódico EL CORREO de fecha 20 de julio de 2017 y en el tablón de anuncios digital de la web municipal entre los días 10 de julio y 6 de septiembre de 2017.

Durante el periodo de exposición pública se ha formulado una alegación suscrita por la Asociación de Hostelería de Bizkaia, que ha sido informada por los servicios técnicos municipales.

Hori guztia aztertuta Udalbatzarrak ondorengoa erabakia du:

LEHENENGO. *Bizkaiko Ostalaritza Elkartek aurkeztutako alegazioaren aspektu batzuk baiestea eta beste batzuk ezestea, kasuan kasu, honako ebazpenari erantsitako udal txostenean jasotakoaren arabera, berori izan baita erabaki hau hartzeko arrazoa eta hala bidaltzen zaio elkarte interesdunari.*

Jarraian jasotzen dira onetsiak eta ezetsiak izan diren alegazioaren aspektuak:

Aurretikoa.- Orokorra
Alegazioaren aspektu hori ezestea udal zerbitzu teknikoaren txostenean azaldutako arrazoiengatik.

1. artikulua.- Ordenantzak barruan hartzen dituen jarduerak
Alegazioaren aspektu hori baiestea, ordenantzaren transkripzio-akatsak izanik, zuzenduko direlako.

2. artikulua. – Ordutegiak
Alegazioaren aspektu hori ezestea udal zerbitzu teknikoaren txostenean azaldutako arrazoiengatik.

Examinado lo anterior, el Pleno de la corporación adopta el siguiente acuerdo:

PRIMERO. Estimar o desestimar, en su caso, algunos aspectos de la alegación formulada por la Asociación de Hostelería de Bizkaia, en los términos expuestos en el informe municipal que se incorpora a la presente resolución, le sirve de motivación y se traslada a la asociación interesada.

A continuación se reproducen aquellos aspectos de la alegación que han sido o bien estimados o bien desestimados:

Previa.- General.
Desestimar este aspecto de la alegación por los motivos expuestos en el informe técnico municipal.

Artículo 1.- Actividades incluidas.
Estimar este aspecto de la alegación por tratarse de errores de transcripción en la ordenanza, que serán corregidos.

Artículo 2.- Horarios.
Desestimar este aspecto de la alegación por los motivos expuestos en el informe técnico municipal.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ordenanzas/Reglamentos Propuesta de resolución

Ordenantzak/Araudiak Proposatutako ebazpena

1105/2017

SER1110LB

Código de validación/*Balidazio kodea*
5B5D6R45646F0R0Y18MR



4. artikulua.- Kokalekua eraikinean
Alegazioaren aspektu hori partzialki baiestea eta horregatik ordenantzaren behin betiko testuan ondoko esaldia jasoko da: "8. artikuluan jasotako baldintzak betetzen direlarik".

8. artikulua. –Komunak
Alegazioaren aspektu hori baiestea. eta horregatik ordenantzaren behin betiko testuan ondoko esaldia jasoko da: "...eta horietara erabiltzaile guztiak libreki inolako murriztapenik gabe sartu ahal izango dira, hala ezartzen baita 10/2015 Legearen artikuluetan".

14. artikulua. – Argiak
Alegazioaren aspektu hori ezestea udal zerbitzu teknikoaren txostenean azaldutako arrazoiengatik.

18. artikulua. – Sukaldeak
Alegazioaren aspektu hori ezestea udal zerbitzu teknikoaren txostenean azaldutako arrazoiengatik.

27. artikulua. – Lizentzien titulartasuna aldatzea.
Alegazioaren aspektu hori ezestea udal zerbitzu teknikoaren txostenean azaldutako arrazoiengatik.
Hala eta guztiz ere, behin betiko ordenantzaren testuan ondoko esaldia erantsiko zaio artikulua horren tituluari: "eta ostalaritza-talde aldaketak".

28. artikulua. – Betetzea eta egiaztatzea
Alegazioaren aspektu hori partzialki baiestea eta horregatik ordenantzaren behin betiko testuan ondoko esaldia jasoko da: "jarduera-lizentzia behar duten jarduera sailkatuen kasuan, lizentzia izapidetu eta lortu ondoren jarriko dira establezimenduak jardunean, eta hori lortu aurretik

Artículo 4.- Situación en la edificación.
Estimar parcialmente este aspecto de la alegación. En el texto definitivo de la ordenanza se incluirá la frase "y que se cumplen las condiciones del artículo 8".

Artículo 8.- Aseos.
Estimar este aspecto de la alegación. En el texto definitivo de la ordenanza se incluirá la siguiente frase "...los cuales serán de acceso libre y sin restricciones para las personas espectadoras y usuarias, en virtud del articulado definido en la Ley 10/2015..."

Artículo 14.- Alumbrado.
Desestimar este aspecto de la alegación por los motivos expuestos en el informe técnico municipal.

Artículo 18.- Cocinas.
Desestimar este aspecto de la alegación por los motivos expuestos en el informe técnico municipal.

Artículo 27.- Cambios de titularidad de las licencias.
Desestimar este aspecto de la alegación por los motivos expuestos en el informe técnico municipal.
No obstante, en el texto de la ordenanza definitiva se añadirá al título de este artículo la frase "y cambio de grupo de hostelería".

Artículo 28.- Cumplimiento y comprobación.
Estimar parcialmente este aspecto de la alegación. En el texto definitivo de la ordenanza se incluirá la siguiente frase "1.En caso de actividades clasificadas sometidas a licencia de actividad, los establecimientos podrán ponerse en funcionamiento una vez tramitada y obtenida

ikuskatzailletza- bisita egin ahal izango da...”.

30. artikulua. – Iraungitasuna eta luzapenak Alegazioaren aspektu hori baiestea. Iraungitze-epea 6 hilabetekoa izango dela jasoko da.

*Bigarren Xedapen Gehigarria
Alegazioaren aspektu hori baiestea, akats gramatikala izanik, ordenantzaren behin betiko testuan zuzendu egingo delako.*

BIGARREN. “Ostalaritzako eta jolas jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzen duen Udal Ordenantza” behin betikotasunez onestea, honakoaren lehen erabakian jasotzen diren aldaketak eginez..

HIRUGARREN. “Ostalaritzako eta jolas jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzen duen Udal Ordenantza” Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sar dadin..

la misma, previamente a la cual se podrá girar visita de inspección...”

*Artículo 30.- Caducidad y prórrogas.
Estimar este aspecto de la alegación.
Se incluirá que el plazo de caducidad sea de 6 meses.*

*Disposición Adicional Segunda.
Estimar este aspecto de la alegación al tratarse de un error gramatical que será corregido en el texto de la ordenanza.*

SEGUNDO. Aprobar con carácter definitivo la “Ordenanza municipal Reguladora de la instalación y actividad de establecimientos hosteleros y actividades recreativas”, con las modificaciones expresadas en el apartado primero.

TERCERO. Procédase a la publicación del texto definitivo de la “Ordenanza municipal Reguladora de la instalación y actividad de establecimientos hosteleros y actividades recreativas”, en el Boletín Oficial de Bizkaia, para su entrada en vigor.